

na lurraldean. Gogoratu Oñati XIX ga-
ren gizaldirarte ez zala Gipuzkoan oso-
tu. Lope de Aguirre Ameriketako buru-
magiaren entzutea asko zabaldu da azken
urteetan. Aren auzokide zan Aozaraza
frailea.

Bata, errezildarra, Donostia'ko san
Telmo'n frailetu zan; bestea, Arantzazu-
ko etxea alboan eukiarren, Gasteiz'en
fraile jantzia artua zan. Dominikutar
fraileak gure errialdean ezagun ziran
denporaldikoak biak.

Erkizia, bear ba da, fraile orreik Az-
peiti'n euken konbentutik zaletuko zan.
Bestea, jakiña danez, Gebaratar kondeak
Gasteiz inguruagaz euken artu-emonen
mendean, Gasteiz'en.



H. Gerardo, el «Portero Santo»
de Roma, atiende a los pobres durante
la guerra mundial.

Emengo konbentuak, bertako itxas-gi-
zon, guda-gizon eta merkatariak ebiltzan
lez, Filipinas'etara begira egozan. Ba-
tzuk lur barriak billatzen, Legazpi, Ur-
daneta eta abar lez. Besteak areitako on-
dasunen billa, edo ta bertakoen arima
billa, misiolari. Kontu egin dominikuta-
rrak 1587 urtean sortu ebela Filipinaseta-
ko Errosario santuaren probintzia. Andik
asi ziran ugarterik ugarte, irlarik irla,
Japon aldera urreratzen.


Orrela 1610 urtean joan zan Erkizia
errezildarra bertara. Eta Manila'n egin
zitun urte batzuk irakasle. Laster asi zi-
ran inguru areitan misiolari katolikoek
aurkako erasoak. Eta esan lei euskal mi-
siolariak, irakasle baiño, fede zabalkunde
garra eta beragaz batera martiritzako
adorea eroan ebela.

Leku arrisksuetara bialtzea eskatu
eta lortu eben. Erkizia Nagasaki aldera
bialdu eben. Inguru bardiñera, baiña us-
tez alkar ezagutzen ez ebela, Aozaraza.
Au ekonomi kontuetan azkarra zala esa-
ten da. Baiña ekonomien gain, misiola-
riak fedearen zabalkundeak erabilten da-
kio.

Garai aretako Nagasakiko jazarpen
eta erasoaldiak gogorak izan ziran mi-
siolarientzat. An, euren esanetan, «egu-
nero eriotzaren atzaparretan» ikusten zi-
ran. Alako baten emengo bizia eten bear,
Martiritzaren apologiari biziena egiñaz.

1987 urteko Urrilla'ren 18'an euskal-
dun bi santutzat autortu ziran. Biak gi-
puzkoarrak. Zortzi illabete geroago, Ba-
gillaren 19'an, beste bat geiago goratu
zan. Urrengo ori bizkaitarra, Balentin
Berrio-Otxoa. Eta uste dogu ez dirala
urte asko igaroko gu geuk ezagutu gen-
dun Aita Patxi, edo ta Gerardo Sagarduy
Anaia eta beste pasiotar batzuk zoriendu
eta santutzat gurtuten asteko, gaur be
gure biotzetan santu-maitasunez artu eta
gogoratzen doguzalako.

A. Zubikarai



Euskal santu barriak

Zenbat urte bear dira Eleizak bere seme bat santu ezaupidez autortzeko?

Zenbat, martiri bat edo ta fedeagaitik odola emondako zintzo bat zoriondun lez ezagutzeko? Eta zoriondun aukeratu ondoren, zenbat santutasun aintzaz gurtza osoan aldaretara eroateko?

Eleizaren eskutuak, esaten da. Alaxe da.

Erkizia eta Aoza raza gipuzkoarrak martiri lez il ziran. Errezildarra bata oñatiarra bestea. Euskaldun jatorra biak. Biak fraile ordena bardiñekoak, dominikutarrak. Alaz eta, uste danez, alkar ezagutu barik il ziranak.

Aita Domingo Erkizia, 1589 urtean jaio zan, Errezil'en, Ibarbia ballerako Bilbin izeneko baserrian. Bestea 1589 urtean jaio zan, gaur Gipuzkoa izanarrea, garai aretan Gebaratarren konde-erri